

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 632

*EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 15ekoa, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena, zeinaren bitartez osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozedurarako 2021eko deialdia egiten baita, martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuan ezarrita dagoen moduan.*

2008ko otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuak osasun-zientzietako espezialitateak finkatzen eta sailkatzen ditu, eta osasun-prestakuntza espezializatuko alderdi konkretu batzuk garatzen ditu. Bada, errege-dekretu horrek 12.2 artikuluan ezartzen duenaren arabera, autonomia-erkidegoek, tutoreen gaitasunak egokiak direla eta mantendu egingo direla bermatzeko, tutoreak akreditatzeko eta akreditazio horiek aldi-aldi berritzeko ebaluazio-prozedura batzuk arautuko dituzte, hala baitago ezarrita 2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 10.1 eta 10.3 artikuluetan. Horretarako, kontuan hartuko dira, besteak beste, espezialista moduan esperientzia jarraia izatea, irakaskuntzan esperientzia izatea, etengabeko prestakuntzako jarduerak, ikerkuntzako eta kalitatearen hobekuntzako jarduerak, eta irakaskuntza-metodologietan prestakuntza espezifiko izatea. Kontuan izango dira, halaber, kalitateari buruzko ebaluazioen emaitzak, eta lortutako gogobetetzea neurtzeko inkesten emaitzak.

Halaber, lege horren Lehen Xedapen Gehigarriaren lehen apartatuan ezartzen denaren arabera, osasun-zientzien espezialitate sortu berrietan eta legea indarrean jartzean garatu gabe edo ezarpen-aldian dauden espezialitateetan, tutoreak izendatzeko eskatzen diren betekizunen ordez, nahikoa izango da dagokion espezialitatearen lanbide-eremuan esperientzia dagoela egiaztatzea, betiere, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun, eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak –espezialitate bakoitza egiaztatzeko betekizun nagusiak onartzean– zehaztutako moduan. Familia- eta komunitate-erizaintzaren espezialitateari dagokionez, maiatzaren 9ko PRE/861/2013 Aginduaren bidez, hots, familia- eta komunitate-erizaintzan eta familia- eta komunitate-medikuntzan espezialistak prestatzeko irakaskuntza-unitate multiprofesionalen akreditazio-baldintzak ezartzen dituen Aginduaren bidez, tutoreak izendatzeko eskatzen diren betekizunen ordez, agindu horren II. eranskinaren bigarren puntuaren ezarritako irizpideak ezartzen dira, behin-behinean, eta, gehienez ere, 2 urterako, erizaintzako espezialitateei buruzko apirilaren 22ko 450/2005 Errege Dekretuaren bigarren Xedapen Iragankorrean aurreikusitako gaitasunaren ebaluazio-proba amaitzen denetik aurrera.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistema antolatzen du, eta kide bakarreko irakaskuntza-organoak ezartzen ditu. Bada, dekretu horren 21. eta 25. artikuluetan zehazten da zer akreditatze- edo berrakreditatze-prozedura bete behar diren tutoretza eginkizunak burutzeko, eta zehazten da, halaber, prozedura hori hasiko dela Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak eskabideak aurkezteko epea irekitzen duenean.

Aurreko arauetan xedatzen dena betetzeko, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan prestakuntza espezializatua emango duten tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko deialdia onartzea eta argitaratzea, I. eta II. eranskinetan aurreikusitako oinarrien arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 15a.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria,  
MIGUEL SÁNCHEZ FERNÁNDEZ.

## I. ERANSKINA

OSASUN-PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUKO TUTOREAK AKREDITATZEKO  
DEIALDIAREN OINARRIA

Lehenengo oinarria – Helburua.

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzea.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak izango du prozedura honetarako zein eskabideak izapidetzeko eta ebazteko eskuduntza.

Bigarren oinarria.– Eskatzaileen betekizunak.

1.– Osasun-prestakuntza espezializatuan tutoreak akreditatzeko deialdi honetan, egoiliarren tutoretza-eginkizunak landu nahi dituztenek parte hartu ahal izango dute, martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuak zehazten duen tutore nagusiaren ezaugarriekin, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Osasun-zientzietako espezialistaren titulua eduki behar dute, tutore izan nahi duten espezialitatean.

b) Zerbitzu aktiboan egon behar dute irakaskuntza-zentro edo unitate akreditatuaren edozein egituratan.

c) Gutxienez urtebeteko esperientzia eduki behar dute beren espezialitateari berariaz dagokion sorospen-jardueran, irakaskuntza-zentro edo unitate akreditatuan bertan.

2.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baita familia eta komunitateko erizaintzako egoiliarren tutore gisa akreditatuak izan nahi dutenek ere, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Zerbitzu aktiboan egotea dagokien irakaskuntza-zentro edo unitate akreditatuaren edozein egituratan.

b) Esperientzia egiaztatua eta jarraitua izatea familia eta komunitateko erizaintzaren lanbide-eremuan, azken bost urtean.

c) Familia eta komunitateko erizaintzaren ikerketa edo komunikazio zientifiko espezifikoko proiektu batean parte hartu izana azken bost urteetan.

3.– Deialdi honetan parte hartu beharko dute martxoaren 6ko 34/2012 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoaren osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzkoa) indarrean sartu ondoren behin-behineko izendapena duten eta tutoretza lanean jarraitu nahi duten tutoreak.

Hirugarren oinarria.– Eskabideak aurkezteko bidea eta epea.

1.– Epea.

Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2021eko abenduaren 31n bukatuko da.

## 2.– Aurkezteko bidea.

### 2.1.– Eskabide-eredua.

Ebazpen honen III. eranskinean dagoen ereduaren arabera aurkeztuko da prestakuntza espezializatuko tutore gisa akreditatzeko eskabidea.

### 2.2.– Aurkezteko lekua.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/y22-home/eu/>) eskuratu daitekeen formulario normalizatua erabiliz, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua eta Administrazio Elektronikoa otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera.

Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta erantsi beharreko gainerako agiriak. Orobat, eskabidea aurkeztu izanaren ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabileraren Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikulua ezartzen duenari jarraituz.

### 2.3.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabide-dokumentu normalizatuarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

#### a) Curriculum.

b) Osasun-zientzietako espezialistaren tituluaren kopia eta emandako zerbitzuen ziurtagiria, dagokion zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzak, zentro edo zerbitzuko burutzak edo irakaskuntza-unitateko ikasketa-burutzak emana.

Osakidetzaren barruan daudenek a) eta b) puntuetako agirien ordeztu Osakidetzako curriculum estandarizatua aurkeztu ahal izango dute. Nolanahi ere, balidatuta egon beharko du eta bertatik ondorioztatu beharko da urtebeko esperientzia dutela gutxienez beren espezialitateari berariaz dagokion sorospen-jardueran, zentroan edo akreditatutako irakaskuntza unitatean bertan.

#### c) Tutoretza-helburuei buruzko proiektua, atal hauek izango dituenak:

- Espezialitatearen prestakuntza-ibilbidea.
- Prestakuntzako bakarkako programa mamitzeko kontuan hartu beharreko alderdiak.
- Prestakuntza-ebaluazioa.
- Urteko eta amaierako ebaluazioa.

d) Azken 5 urteetan familia eta komunitateko erizaintzaren arloko ikerketa eta/edo komunikazio zientifikoko proiektu espezifiko batean parte hartu izana egiaztatzen duen dokumentazioa (proiektuaren ikertzaile nagusiak egindako egiaztagiria edota komunikazio zientifikoaren kopia), espezialitate honetarako akreditazioa nahi bada.

### 2.4.– Eskabideak zuzentzea.

Eskabide-inprimakiak ez badira guztiz betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazioa aurkezten, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio hutsegitea konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea ukatuzat joko dela adieraziko zaio.

Laugarren oinarria.– Eskabideak baloratzea.

Eskatzaileak aurkezten duen dokumentazioa Balorazio Batzorde batek aztertuko du, zeinaren kideak Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak izendatuko baititu. Honako kide hauek izango ditu batzorde horrek: akreditazioa lortzeko hautagaiak dituzten zentro edo unitateetako ikasketa-buruak, zentro edo unitate horietako irakaskuntza-batzordean parte hartzen duten tutore akreditatuak, eta Osakidetza Erakunde Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkariak. Guztira, gehiezez ere, 7 kide izango dira.

Balorazio Batzordeak, dokumentazioa azertu ondoren, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzari. Balorazio-prozesuan elkarrikerria bat ere egin daiteke, hautagaiak tutoretza-lanak egiteko duten interes pertsonala eta motibazioa ezagutzeko.

Bosgarren oinarria.– Ebazpena.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak ebazpen arrazoitu eta berriazkoa emango du, eskatutako akreditazioa onartzeko edo ukatzeko, eskabidea aurkeztu eta hiru hileko epean. Epe horren zenbaketa eten egingo da, interesdunek eskabideetan dauden hutsak zuzentzeko eta eskabide horiek hobetzeko behar duten denboran.

Ematen den ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta horren berri emango zaie behar den irakaskuntza-zenetro edo unitateko erakunde titularraren zuzendaritza-organoari eta behar den irakaskuntza-batzordeari.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Seigarren oinarria.– Egiaptapenaren ondorioak.

Akreditazioa emateko ebazpenak berekin dakar interesdunak beharrezko gaikuntza lortzea, izendatua izateko eta osasun-prestakuntza espezializatuko tutoretza-funtzioak betetzeko, ebazpenaren dataren hurrengo egunetik aurrerako hurrengo lau urteetan. Bost urteko espezialitateentzat, gaikuntzaren eta tutoretza-funtzioak betetzearen iraupena bost urtekoa izango da.

Zazpigarren oinarria.– Tutoretza-jarduera aitortzea.

Egiaptatutako tutoretza-jarduera aitortu eta sustatuko da martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzkoa) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 19/2020 Jarraibidearen arabera (prestakuntza sanitario espezializatuan eta egindako lanaren ziurtapenean esku hartzen duten figurei buruzkoa).

Zortzigarren oinarria.– Akreditazioa baliogabetzea eta iraungitzea.

Egiaptapena baliogabetu ahal izango da, martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuaren 26. artikuluan (Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren antolamenduari buruzkoa) zehaztutako arrazoiengatik.

Akreditazioa iraungiko da haren indarraldia amaitzen denean.

Bederatzigarren oinarria.– Datu pertsonalen babesari buruzko informazio klausula.

Jakinarazten da «Prestakuntza eta garapen profesionala» izeneko tratamendu-jarduerarako erabiliko direla datu pertsonalak, hauei jarraikiz: datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta horiek garatzen dituen araudia, zein datuen babesaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak bete daitezzen. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Helburua: eskaerak kudeatzea eta osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozeduraren jarraipena egitea (Osasun Sailak egindako deialdia).

Lege-oinarria: interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko behar den tratamendua da (Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko 2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legea).

Jasotzaileak: gaiaren gaineko eskumena duten administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: zeure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko eskubidea ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: web helbide honetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago:

[https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu\\_def/adjuntos/0893\\_eu.html](https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0893_eu.html)

## II. ERANSKINA

### OSASUN-PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUKO TUTOREAK BERRAKREDITATZEKO DEIALDIAREN OINARRIA

Lehenengo oinarria.– Helburua.

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreen akreditazioa berritzea.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak izango du prozedura honetarako zein eskabideak izapidetzeko eta ebazteko eskuduntza.

Bigarren oinarria.– Eskatzaileen betekizunak.

Berrakreditazio-deialdi honetan parte hartu ahal izango dute osasun-prestakuntza espezializatuko tutoretza nagusiaren funtzioak betetzeko akreditatuak izan diren pertsonak, martxoaren 6ko 34/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera (EAEko osasun-prestakuntza espezializatuko sistema antolamenduari buruzkoa), azken hamabi (12) hilabeteetan egoiliarrei tutoretza-lanak egin badizkiete, tutoretza-lanak egiten jarraitu nahi badute eta akreditaziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte, baina amaitu bada akreditazio-ebazpenean adierazitako indarraldia.

Hirugarren oinarria.– Eskabideak aurkezteko bidea eta epea.

1.– Epea.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzako Irakaskuntza eta Lanbide Garapeneko Zerbitzuak egindako komunikazioaren hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea. Komunikazio horren bidez, tutoreei abisatuko zaie, baldin eta haien akreditazioak 2021ean iraungitzen badira. Jakinarazpen hori akreditazioak iraungi baino bost hilabete lehenago egingo da, gutxienez.

Eskabideak aurkezteko epea akreditazioaren mugaegunaren aurreko hilaren egun berean amaituko da.

2.– Aurkezteko bidea.

2.1.– Eskabide-eredua.

Ebazpen honen IV. eranskinean dagoen ereduaren arabera aurkeztuko da prestakuntza espezializatuko tutore gisa berrakreditatzeko eskabidea.

2.2.– Aurkezteko lekua.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/y22-home/eu/>) eskuratu daitekeen formulario normalizatua erabiliz, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera eta Administrazio Elektronikoen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera.

Interesdunek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Orobat, eskabidea aurkeztu izanaren ondoriozko jarduketan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeaz azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikulua ezartzen duenari jarraituz.

2.3.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabide-dokumentu normalizatuarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Lehen akreditazioa lortu zuenetik dagozkion arloetan eskuratu dituen merezimenduen curriculum edo txostena (horrekin batera, egoki irizten dituen agiri eta ziurtagiri guztiak ere aurkeztuko ditu).

b) Egindako tutoretza-jarduerei buruzko txostena (interesdunek memoria burutzeko eredia izango dute Osasun Saileko web orrialdean, osasun-prestakuntza espezializatuko atalean).

c) Tutoretza-helburuen proiektua (hobekuntza-plana).

2.4.– Eskabideak zuzentzea.

Eskabide-inprimakiak ez badira guztiz betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazioa aurkezten, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio hutsegitea konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea ukatuzat joko dela adieraziko zaio.

Laugarren oinarria.– Eskabideen balorazioa.

Eskatzaileak aurkezten duen dokumentazioa Balorazio Batzorde batek aztertuko du, zeinaren kideak Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak izendatuko baititu. Honako kide hauek izango ditu batzorde horrek: akreditazioa lortzeko hautagaiak dituzten zentro edo unitateetako ikasketa-buruak, zentro edo unitate horietako irakaskuntza-batzordean parte hartzen duten tutore akreditatuak, eta Osakidetza Erakunde Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkariak. Guztira, gehiezin ere, 7 kide izango dira.

Balorazio Batzordeak hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta berrakreditazio-irizpideen mantentzea eta hobekuntza ebaluatuko du, akreditazio-prozedurako baremo bera erabiliz, baina itemen eskakizun-maila eta pisua aldatuz, memoria curriculum bano gehiago balora dadin.

Gainera, Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak urtero egiten dituen inkestetan adierazitako kalitate-ebaluazioen eta egoiliarren balorazioen emaitzak hartuko dira kontuan, eta, prozedura amaituta, ebazpen-proposamena egingo du.

Bosgarren oinarria.– Ebazpena.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak ebazpen arrazoitu eta berriazkoa emango du, eskatutako akreditazioa onartzeko edo ukatzeko, eskabidea aurkeztu eta hiru hilabeteko epean. Epe horren zenbaketa eten egingo da, interesdunek eskabideetan dauden hutsak zuzentzeko eta eskabide horiek hobetzeko behar duten denboran.

Ematen den ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta horren berri emango zaie dagokion irakaskuntza-zentro edo unitateko erakunde titularraren zuzendaritza-organoari eta dagokion irakaskuntza-batzordeari.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Aurreko akreditazioaren indarraldia amaitu aurretik berrakreditazioa lortu duten tutoreek ordura arteko izendapenari eutsiko diote.

Seigarren oinarria.– Datu pertsonalen babesari buruzko informazio-klausula.

Jakinarazten da «Prestakuntza eta garapen profesionala» izeneko tratamendu-jarduerarako erabiliko direla datu pertsonalak, hauei jarraikiz: datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta horiek garatzen dituen araudia, zein datuen babesaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak bete daitezzen. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Helburua: eskaerak kudeatzea eta osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozeduraren jarraipena egitea (Osasun Sailak egindako deialdia).

Lege-oinarria: interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko behar den tratamendua da (Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko 2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legea).

Jasotzaileak: gaiaren gaineko eskumena duten administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: zeure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko eskubidea ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: web helbide honetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago:

[https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu\\_def/adjuntos/0893\\_eu.html](https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0893_eu.html)

## III. ERANSKINA

EGOITZA-SISTEMAREN BIDEZ OSASUN-ZIENTZIETAKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUAN TUTOREA IZATEKO AKREDITAZIO-ESKAERA					
DATU PERTSONALAK					
Abizenak		Izena		Sexua	
Jaiotze-data					
IFZ		Telefonoa			
Helbidea					
e-maila					
Herria		Probintzia		PK	
ZER IRAKASKUNTZA-UNITATETARAKO ESKATZEN DEN TUTORE GISA AKREDITATZEKO					
ESPEZIALITAEA					
DATU PROFESIONALAK					
Lantokia					
Herria		Probintzia			
ERANSTEN DUEN DOKUMENTAZIOA					
<input type="checkbox"/>	Curriculuma				
<input type="checkbox"/>	Osasun-zientzietako espezialistaren tituluaren kopia				
<input type="checkbox"/>	Emandako zerbitzuen egiaztagiria				
<input type="checkbox"/>	Tutoretza helburuen proiektua				
<input type="checkbox"/>	Azken 5 urteetan familia- eta komunitate-erizaintzaren arloko ikerketa eta/edo komunikazio zientifikoko proiektu batean parte hartu izana egiaztatzen duen agiria (familia- eta komunitate-erizaintza espezialitatean tutore gisa akreditatu nahi dutenentzat)				

## ESKATZEN DU:

2021eko urtarrilaren 15eko Ebazpenaren bidez egindako deialdian ezarritako baldintzak onartzen dituela, eta egoitza-sistemaren bidez osasun-zientzietako prestakuntza espezializatuan tutorea izateko akreditazio-eskaera onartua izatea eta akreditazioa ematea.

Tokia eta data

Eskatzailearen sinadura

PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA EBALUAZIO SANITARIOKO ZUZENDARITZA

#### Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta datuen babesaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak betez, jakinarazten da "Prestakuntza eta garapen profesionala" izeneko tratamendu-jarduerarako erabiliko direla datu pertsonalak. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

**Arduraduna:** Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

**Helburua:** Eskaeren kudeaketaren eta osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozeduraren jarraipena, Osasun Sailak deituta.

**Lege-oinarria:** Interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko beharrezkoa suertatzen den tratamendua da (2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legea, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa).

**Jasotzaileak:** Gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

**Eskubideak:** Zeure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

**Informazio gehigarria:** Web helbide honetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago:

[https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu\\_def/adjuntos/0893\\_eu.html](https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0893_eu.html)

## IV. ERANSKINA

EGOITZA-SISTEMAREN BIDEZ OSASUN-ZIENTZIETAKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUAN TUTOREA IZATEKO BERRAKREDITAZIO-ESKAERA					
DATU PERTSONALAK					
Abizenak		Izena		Sexua	
Jaiotze-data					
IFZ		Telefonoa			
Helbidea					
e-maila					
Herria		Probintzia		PK	
ZER IRAKASKUNTZA-UNITATETARAKO ESKATZEN DEN TUTORE GISA BERRAKREDITATZEKO					
ESPEZIALITAEA					
DATU PROFESIONALAK					
Lantokia					
Herria		Probintzia			
ERANSTEN DUEN DOKUMENTAZIOA					
<input type="checkbox"/>	Gaurkotutako curriculuma				
<input type="checkbox"/>	Egindako tutoretza-jarduerei buruzko txostena				
<input type="checkbox"/>	Tutoretza-helburuen proiektua (hobekuntza-plana)				

## ESKATZEN DU

2021eko urtarrilaren 15eko Ebazpenaren bidez egindako deialdian ezarritako baldintzak onartzen dituela, eta egoitza-sistemaren bidez osasun-zientzietako prestakuntza espezializatuan tutorea izateko berrakreditazio-eskaera onartua izatea eta berrakreditazioa ematea.

Tokia eta data

Eskatzailearen sinadura

PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA EBALUAZIO SANITARIOKO ZUZENDARITZA

#### Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta datuen babesaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak betez, jakinarazten da "Prestakuntza eta garapen profesionala" izeneko tratamendu-jarduerarako erabiliko direla datu pertsonalak. Ezaugarri hauek ditu tratamenduak:

**Arduraduna:** Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

**Helburua:** Eskaeren kudeaketaren eta osasun-prestakuntza espezializatua emateko tutoreak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozeduraren jarraipena, Osasun Sailak deituta.

**Lege-oinarria:** Interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko beharrezkoa suertatzen den tratamendua da (2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legea, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa).

**Jasotzaileak:** Gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

**Eskubideak:** Zeure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

**Informazio gehigarria:** Web helbide honetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago:

[https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu\\_def/adjuntos/0893\\_eu.html](https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0893_eu.html)